

AREETA 1

Lehenengo izena "**Plaza de las Arenas**" izan zuen, gaztelaniaz; garai hartan euskarak ez zeukan tokirik biritza ofizialean; inor bizi ez zen toki batean urbanizatutako zegoen ia leku bakarra zen hau; **Portugaletera** joan nahi zutenek edo Portugaletetik zetozenak batzeko tokia

1927an, inguruko etheen eraikuntza bete-betean zegoela, garaiko errege **Alfontso XIIIaren Plaza** moduan izendatu zuten. 1932an, II errepublikaren sasoian EAJren sortzailea izan zen **Sabino Arana Goiri Plaza** moduan izendatu zuten. 1937an armada frankista Getxon sartu zenean **Plaza del Generalísimo Franco** izena jarri zioten eta azkenik, 1980an, **Zubiko Enparantza**.

Iraultza frantsesa izan zenetik, toponimoak sarri erabili izan dira propaganda politikorako ere. Momentuko agintariek beraien aldekoen gogoia indartzeko erabili izan dituzte kale, plaza eta toki esanguratsuak. Horrek arazo handiak sortzen ditu; izan ere agintzen dihardutenak aldatzen direnean, toki-izenak ere aldatzeko joera izan ahal dutelako. Gaur egun, nazio batuek aholkatzen dute kontu handia izateko tokientzako pertsona fisikoen izenak erabiltzeko orduan, batez ere bizirik baldin badaude.

Gaur egungo izen ofizialak "**Zubiko enparantza**"k badauka beste arazo bat ere, "enparantza" deitzeak hizkuntzaren jatorriaren aldetik arazoa sortzen du; orain 40 urte, "enparantza" erabiltzea dotoreago geratzen zen baina enparantza, arkudun soportalez osatutako plazaren sinonimoa da, batez ere Castilla eta leku oso beroetan egoten diren plazen estilokoa; Euskal Herrian, "enparantza" etxe aurreetan egon ahal den tokiari edo guneari deitu izan zaio, tapatuta egon ahal den egongune bat baina ez da berez plaza moduan ulertzen duguna. Horregatik egokiagoa ematen du Zubiko plaza deitzea.

Areeta izenari dagokionez, erabat deskribatzaile da; izan ere gunea hau guztia harez betetako espazioa izan zen XX. mende hasierara arte. **Areeta** lehenengo aldiz Portugaleteko dokumentazioan agertu zen. XV. mendean **Ibaizabal** errearen bokalean barkua hondoratu zen eta pleitua egon zen barkuaren hondakinak hartzea nori zegokion erabakitzeke; hor aipatzen da "los arenales de **Areeta**". Eta sasoi berdinean, Portugaleteko "fuentes documentales"en aipatzen da **Algorta** toki izen bezala.

AREETA 2

Portugalete ikusten da hemendik. Dorrean idatzi zuen Lope Garcia Salazarrek "Bienandanzas e Fortunas".

Portugalete historian zehar erdal hiribildua izan da eta Getxo berriz XX. mendearen hasierara arte euskaldun ia elebakarra. Portugalete denda eta zerbitzuen hiria izan da historian zehar eta **Getxo** berriz, batez ere nekazaria eta arrantzale kolonia batekin. Hemengoek "Portalte" deitu izan diote ahoz.

Gauden toki honetan, XIX. mendearen erdialdera arte zergak kobratzeko etxe bat zegoen "la casa del Muelle" eta bere alboan egurrezko kai zahar bat; kaiaren zeregina, Portugaletara pasatu nahi zuenari barkura igotzen laguntzea zen. Dokumentazio zaharrean, kaiarekin lotuta izen ezberdinak agertzen dira: **Kresaltsu**, **Algorta**. Ia XX. mendera arte, etxeak diren horretan guztian, padura, otea eta hondarra zegoela pentsatu behar dugu eta **Algortara** joateko bidexka bat imajinatu behar dugu gaur egun **Zugazarte** pasean.

Inguruaren izena dokumentazioan, "Los arenales de Areeta", "Los arenales de Lamiaco" eta antzekoak ziren, ingurua zelakoa zen adierazten zuten; Getxoko

herriaren jabetza ziren 1856ko Madozen desjabetze edo "expropiatoria" arte; hor, Espainako estatuak beretzat hartu zituen lursailak eta enkantera atera. Maximo Aguirrek bereganatu zituen lur guztiak bainuetxea eta urbanizazioa egiteko. Metro karratua 0,1 euro ordaindu zuen.

Maximo Aguirrek bigarren sorta batean **Leioako** kostalde guztia eta gaur egungo **Erandio** ere eskuratu nahi izan zuen baina urte bitan legea aldatu egin zen eta estatuak hori saltzeko aukerarik ez zuen izan.

Maximo Aguirre bisionario bat izan zen; ingeniariak ekarri zituen Frantziatik proiektuan laguntzeko, haize errotaren bitartez ura atera zuen paduretatik, pinua landatu zuen haremuna egonkortzeko, 1868an lehenengo bainuetxea jarri zuen Areetako hondartzan eta horren atzean asmo mobiliario erraldoia zuen: **Areeta** guztia **Bilboko** burgesentzako etxez betetzea.

Maximo gazterik hil zen, behintzat bere proiektua erabat beteta ikusi gabe baina bere alarguna zen Francisca Labrochek eta bere semeek jarraitu zuten higiezinaren negozioarekin eta aberatsak erakartzeko asmoarekin eta propaganda ekintza moduan Saboyako Amadeo Espainiako erregeari oruberik onena eskaini zioten baldin eta aldiro bainuetxera etortzen bazen eta ez hori bakarrik, **Areetari** izena aldatzeko asmoa ere bazuten eta "**Villa Victoria**" jartzea Maria Victoria dal Pozzo della Cisterna erregearen lehen emaztearen ohoretan.

XIX. mende amaieretarako argi zegoen bainuetxearen inguruan bildutako burges aberatsentzako hiria sortzearen ideia, borobila izan zela eta hamarkada batzuk arinago pentsaezinak zirenak ikusi ziren; adibidez, Bilbon jaiotako Felipa Bustingorri ostatua zabaltzeko aukera eman zioten alarguna zelako eta urte gutxiren buruan emakume langile hau Getxoko pertsonarik aberatsenatarikoa bihurtu zen.

Areetako 0 gunea 1863an inauguratutako (Maximo Aguirre hil zen urtea) eliza da; banaketa urbanistikoa hortik hasten da; kale zabalak, orube zabalak...tokiari balio handiagoa emateko komunikagarritasuna hobetu behar zen eta Algortarako errepidea proiektatu zuen (**Avanzada**, nahiz eta gero, denborarekin honek beste esangura bat hartu izan duen), gaur egungo **Zugazarte** eta Algortako etorbidetik doana (Txomintxu aldapa) eta **Algortarekin** konektatzeaz gain, Bilborekin ere komunikazioa hobetu beharra zegoen eta garaiko sirgabidearen paraleloan, tranbia egitea bultzatu zuen.

SANTA ANA eliza:

Santa Ana Eliza **Lamiako** deitzen zen lekuan eraiki zuten, Areetako dunen atzean. Elizatxo hau, egungo parrokiaren aitzindaria, Francisca Labroche andereak eraiki zuen 1864an. Gaur egun jende askorentzat Lamiako Leioako auzoa bada ere, izatez gaur egun Santa Ana basiliza dagoen ingurua Lamiakoko zati bat baino ez zen. Inguru hori hiritartzeak izenak bereiztea ekarri zuen, jatorrizko Lamiako zokoratuz.

Kontuan izan behar da Bilboko industrializazioa oraindik erabat gauzatu barik zegoela; nolabait esateko garai aurre-industrialia zen oraindik. 20-30 urte beranduago, **Neguri** egin zenean, orduan bai olatu industrial eta ekonomiko indartsua zegoela baina Maximo Aguirrek horren hastapenak baino ez zituen ezagutu.

Areetako orube eta etxeen lehen erosleak ikusiz gero, abokatuak ziren, lanbide liberaletako aberatsak eta itsasoak eskaintzen zuen giro osasuntsua behar zuen jendea.

1893an Areeta eta Portugaleteko bainuetxe biak batzeko egin zuten **Bizkaia zubi** hau. Inauguraziora Espainiako erregina etorri zen, Maria Cristina erreginak 6 bidai

egin omen zituen egun horretan batetik bestera. Pasarela apur bat beranduago egin zen, Ez da berez zubi eseki bat; Europako transbordadore zaharrenetako bat.

AREETA 3

Errekara sarrera honi "**mojijonera**" deitzen zitzaion; hemen harea zegoen eta barkuentzako toki arriskutsua zen itsas-korronteek hare-pilak aldatzen zituztelako; asko eta asko enkailatzen ziren edo hondoa jotzen zuten horrek zekarren kalte ekonomiko guztiarekin.

Toki arriskutsua zen mojijonera, buia finkorik gabea; motorrik gabeko itsasontziak traineruez tiratu behar izaten ziren eta hemendik gora sirgariekin eta animaliekin; lan nekeza, gutxi ordaindutakoa, lokaztutako bidean zehar, **Gobela** ibaia uretaratzen den lekuan sortzen ziren arazoak...gainera hau zen sirgabide bakarra; beste aldean, ezker aldean darsenak eta eraikinak zeuden eta handik ezin zen joan Bilbora.

Errekarako barkuen sarbidea errazteko 1889an egin zuten kai edo moila hau (**Txurruka kaia**). Hondartzan zegoen Areetako bainuetxeak diru arazoak zituen eta horregatik hasi izan ahal ziren hau egiten. Obra Bilboko portuaren aginduz hasi zen, errekaren hainbat eta hainbat arazo konpontzeko eta berehalako eta izugarritzko arraksata izan zuen; Bilboko Portuko trafikoa laukoiztu egin zen hamar urtetan. Fleteak merkatu eta seguruagoak egin ziren eta Bilboko portua estatuko garrantzitsuena bihurtu zen.

Baina Txurruka moila honek mareak aldatu zituen eta ura Areetako hondartza ederrera sartzeko hasi zen, apurka hondartza deuseztatzen hasi zen; Maximo Agirrek amestutako bainuetxea jausi egin zen eta lehenengo lerroan zeuden etxe batzuk ere erori egin ziren eta gehiago eroriko ziren gaur egun nabaria den horma egin izan ez balute.

Evaristo Txurruka Bruneten eskultura dago ikusgai.1939an inauguratu zen nahiz eta aurretik diseinatua izan zuen Ignacio Maria Smithek. Evaristo Txurruka eserita dago eta langileen garaipena itsasoaren kontrako borrokan irudikatu nahi du. alboetan, industria, nekazaritza eta beste jarduera batzuei aipamena egiten zaie

Txurruka Donostian jaioa zen eta Damian Txurrukaren familiakoa, mutrikuarrak jatorriz. Mutrikuko konde titulua eman zioten obra honengatik. Bitxia da hemen titulu nobiliarioarena; izan ere foruak galdu arte ez zen posible edo oso zaila herrien izenak erabiltzea titulu nobiliarioetan; izan ere Foruen arabera bizkaitarrok berdinak ginen (gipuzkoarrak ere bai) eta adibidez Mutrikuko kondea deitzeak esan nahi zuen mutrikuar guztiak bere mendekoak zirela; horregatik, hemengo nobleek beste izen batzuk zituzten Peñafiora, Montefuerte, Marques del Real Socorro ...

Ramon Sotak "Compañía de Remolcadores del ibaizabal" sortu zuenean Sirgerak eta lemanak desagertu ziren. Ramon Sota; EAJri ekonomikoki lagundu zion industrialetako bat izan zen; barkuak zituen eta lehen mundu gerran Ingalaterrari emandako laguntzagatik "sir" titulua eman zion Ingalaterrako erregeak. Ramon Sota faxistak Getxon sartu aurretikoan hil zen baina hala ere fusilatzeraren kondena zuten eta bere irudia fusilatu zuten, bere ondasunak kendu zituzten eta milioietako isuna jarri zioten bere familiari.

Gerra sasoiaren, **Areeta** "nazioarteko gunea" izan zen ertzainek legea bermatzen zuten eta batez ere atzerritarrentzat babesleku bihurtu zen; hala ere, faxistak Bilbon sartu ondoren, hemengo franko-zale batzuk ezkutuan zituzten armak atera eta Portugaleten zeuden anarkistak tirokatu zituzten. Orduan, Portugaleteko anarkistek zubia leherrarazi zuten, hemengo eliza erre zuten eta pertsona batzuk fusilatu. Kurioa eta tristea agian, anarkisten kapitaina elizako parrokoaren anaia zela. Eliza

berri hau, 1947an egin zuten eta gotorleku itxura du , antza denez berriro ez erretzeko.

AREETA 4

Ingurukoek **Areata** deitzen zioten gun e zabal honi eta egon ere badago "**Arieta**" deitutako kalea baina idazten zutenek **Areeta** erabiltzen zuten eta hori geratu da.

AREETA 5

Real Club maritimo.

Lehenengo eraikina Maximo Aguirreren seme eta Francisca Labroche alargunak sortu zuten bainuetxearen pabiloi nagusi modura.

Hondartza desagertu zenean eta turismoa joan zenean, bainuetxea itxi egin zuten eta 1903an itsas clubari alokatu eta ondoren saldu zioten.

Real club maritimoak ETaren atentatua izan zuen 1973an eta gaur egun ikusten dena, berreraikitako eraikina da.

AREETA 6

Amandrerena Oso famatua bere arkitekturagatik; Adituek azpimarratzen dute kalitate oneko materialekin egin dela, estiloa, kromatismoa eta plastikotasun handiak dituela nahiz eta etxerik zaharrenetako bat den.

AREETA 6

Itxasbegi da etxe hau Rafael de Garamendik eraiki zuen 1927. urtean. Arkitektura neoeuskaldunaren adibidea da. Baserriaren eredian oinarrituta dago, baina modu konplexuan apainduta dago: jauregiaren itxura ematen dioten elementu noblez beterik dago. Elementu horren adibideak dira etxera sartzeko alboko arkupea, lehen solairua edo teilatupeko egurra.

Hau bigarren etxea da, lehenengo etxea 1880ko hamarkadaren egin zuten eta XX. mendean aria de La Revillak lehenngo etxe hori eraitsi egin zuen urte batzuk geroago, 1927an egin zuten hau Txilen aberastu zen Fidel Astoreka eta emazteak.

AREETA 7

Bidearte etxe hau, Manuel Maria Smithez eta euskal gizartearen anglofiliari buruz berba egiteko aitzaki ederra da.

Etxe eder hauek ikuskatzean sarri aipatzen da Manuel Maria Smith arkitekto moduan. XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako arkitekto honek hainbat lan egin zituen Getxon; batez ere Areeta-Neguri inguruan. Kale bat ere badauka Mesedetako kalearen inguruan, **Areetan**, **Gobela** erreka baino apur bat gorago.

Dena den, beste gauza askoren artean Manuel Maria Smithek eta bere sasoiko giroak, anglofilia aipatzera garamatza; ingeleserako zaletasuna; ez bakarrik hizkuntzarako, baizik eta pentsaera, bizimodua eta arkitekturarako zaletasuna. Ingalaterrako ohiturak ekarri nahi dira, prentsa, higienismoa, parlamentarismoa, koroa, kirolak (boxeoa, futbola, golf...). MM Smith, horren denaren adierazlea da; Bilboko burgesiaren arkitekto faboritua izan zen hainbat urtez eta bizkor aberastutako jende

honek etxez aldatu behar izan zuenean konfidantza osoa jarri zuten Smithengan; asko eta ederrak Bilbon egindako etxeak eta asko eta ez itsusiagoak Getxokoak: **Lezama- Legizamon, Artaza** jauregia, **Cisco Etxea** edo eta **Bidearte** etxe hau.

Denetariko estiloak ditu; neoeuskalduna, britainiarra, menditarra...izatez 6 etxe dira eta luxuzko etxeak dira.

Ezaguna da erabilitako materialengatik: harlanduak, ladrilluak eta abar

AREETA 8

Ariatza eta Kaialde

Tomas Allende politikoa eta enpresa gizonak enkargatuak eta M.M Smithek eginak 1925 inguruan.

Jatorrizko eraikina Manuel María Smithek eraiki zuen 1925. urtean, baina gaur egungoa, erreforma sakon baten emaitza da; izan ere, zenbait urtez utzita egon zen, eta 2003. urtean hotela bihurtu zuten. Estiloz hau ere nahaste bat da; neoeuskalduna, Penintsulako elementuekin eta Britainia Handiko eraginez.

Lursail berdinean eraikitako bi etxe dira. Tomas Allendek bi seme-alaben (Luis eta Carmen) artean banatu zuen 1925. urtean. Horrela, **Kaialde** eta **Ariatza** finkak sortu ziren.

AREETA 9

Kaiertza

Hau ere MM Smithek egin 1929 inguruan eta bestetan bezala hainbat estilo erabiltzen ditu; erreionalista, euskal jauregi barrokoena, leinu etxeena; material oso onak dituelako ezaguna

AREETA 10

Cisco etxeak

M M Smithek egin 1909an britaniar estiloan eta beranduago berriztatua eta barrokoagoa egin zuten.

Alboko etxeak ere honetan oinarrituta dauden eta Cisco II eta Cisco III bezala ezagutzen dira.

Luis Arana Urigüen politikari eta kirolariak eskatu zuen. Luis Aranak erabiltzen zituen belaontziak "**Cisco**" izena zuten eta etxeari ere horrela deitu zion.

AREETA 11

Balanar edo **La Bola** hondartza: antza danez kaia egiteko etorritako makinista frantses baten izenetik etorri ahal da; Ballana abizenetik baina zalantzak daude.

Bestalde, hau da **Gobela** errekaaren itsasoratze-toki historikoa.

Eguzkialde (Algortako etorbidea 1) alkate andrearen etxea ere deitua. 1918an egin zuten eta "neomenditarra" deitzen den estiloa arkitektonikoan egindako luxuzko etxea da. Estilo honek Kantabriako etxeen ezaugarriak erabiltzen ditu: eguzki ordu

asko izatea, dorreak, armarriak, bolak... material onak ditu eta jendeak erraz ikusteko tokian dago, jatorrizko Avanzadan.

Barbier etxea moduan ere ezagutu izan da; Barbier izeneko batek enkargatu zuelako eta gaur egun ezagunagoa da Alkate andrearen etxea modura; izan ere bertan bizi izan zen Pilar Careaga Espainia guztiko lehen emakume industria ingeniaria eta beranduago Bilboko alkatea.

Hala ere benetako izena Eguzkialde da

Esan behar da, gaur egun **Avanzada** Leioa gurutzatzen duen bideari deitzen bazaio ere, jatorrian, hemen amaitzen zela.